


**MENU NAGUSIA**

- Hasiera
- Empresa
- Zapiain Sagardoa
- Txotx Tradizionala
- Likoreak
- Sagardo Ozpina
- Distribuzioa
- Berriak
- Online Denda
- Kontaktua

**BERRIAK**

### Probaketak 2014. Kata gidatuak Zapiain s...

Aurreko urteetako arrakasta ikusita, Sagardoaren Lurraldeak probaketa edo kata gidatuak antolatu ditu Zapiain sagardotegian 2014ko #txotx denboraldi... Gehiago irakurri

### Txotx 2014

# BERRIAK

## PROBAKETAK 2014. KATA GIDATUAK ZAPIAIN SAGARDOTEGIAN

*Osteguna, 2014(e)ko urtarrila(r)en 30-(e)an 12:38etan*



Aurreko urteetako arrakasta ikusita, Sagardoaren Lurraldeak probaketa edo kata gidatuak antolatu ditu Zapiain sagardotegian 2014ko **#txotx** denboraldirako.

Probaketa, uzta berriaren emaitza ezagutzeko asmoz, sagardotegiak bisitatzeko eta sagardo berria dastatzeko errituan oinarrituriko sagardoaren kulturako usadioa da.

Proposamena Egoitz Zapiain-en eskutik (Zapiain sagardotegiko Kalitate Arduraduna) dastaketa gidatu bat egitea da denboraldi berriko sagardoaren ezaugarriak ezagutu ahal izateko; horretarako, Zapiain sagardotegiko sagardo berria dastatzen da bataren zein bestearen ezaugarriak bereizteko. /p>

2014ko probaketen egutegia:

- 2014/02/15 11:00etan (Eus).
- 2014/03/22 11:00etan (Gaz).
- 2014/04/05 11:00etan (Gaz).



Ezaugarriak:

- Probaketan zehar pintxo batzuk dastatuko dira.
- Iraupena: Ordu 1 eta 30 min.
- Prezioa: 10€ pertsonako.
- Izen-emateak Sagardoaren Lurraldean: 943 550 575 / info@sagardoarenlurraldea.com.
- Probaketa bakoitzeko gehienez 15-20 laguneko taldeak onartuko dira./li>

# TXOTX 2014

*Asteazkena, 2014(e)ko urtarrila(r)en 22-(e)an 08:43etan*

There are no translations available.

Iritxi dira kupeletara gerturatzeko egunak.

Urrian jasotako lehen sagarren muztioa sagardo bihurtu da eta kupeletan daukagu gure zai.

Urtarrilaren 15ean Astigarragan izan zen uzta berriaren aurkezpena. Kalakan taldea izan genuelarik gonbidatu bezela. Ostirala 17an izango da gure ateak irekiko ditugun eguna.

Egunero irekitzen degu gaueko 20.00 etan, igande eta jai egunetan izan ezik. Gainera otsailaren 1 tik Aurrera ostiral eta larunbat eguerditan ere zabalik izango dugu.

Zapiain sagardotegi tradizionala da, gure bakailu tortilla famatuarekin, bakailu frijituarekin, txuleta eta bertako gazta eta intxaurrekin.

Zutik jaten da, mahai altu batean. Edan litekeen sagardo bakarra sagardoa da eta ura gidariarentzat.

Informazio gehiago nahi izate aldera edo erreserbak egiteko deitu **943-33.00.33** zenbakira.

Gure hornitzaileak beren kalitate eta profesionaltasunagatik hautatuak izan dira:

Txogitxu haragiak
Alkorta bakailuak
Avícola tolosa
Huitziko gazta ( idiazábal )
Azkorria ( ossau-irati )
Mendiluze okindegia

## TXOTX 2013

*Ostirala, 2013(e)ko urtarrila(r)en 11-(e)an 09:35etan*

Urtarrilaren 18an izango da lehen eguna eta apirilak 30-an bukatuko degu.

Ilunabarrero 20.00 etan zabalduko ditugu ateak, igande eta jai egunetatan izan ezik. Baita ostiral eta larunbat eguerditan.

http://zapiainsagardoa.com/eu/txotx-tradizionala/txotx-garaia-eta-erreserbak.html

## 2012 KATA

*Asteartea, 2012(e)ko otsaila(r)en 28-(e)an 11:41etan*

Iada hasi gara sagardo kata gidatuekin. Lenengoa burutu degu, sekulako arrakastarekin. Esker mila zuen konfidantzagatik eta ikasteko gogoagatik. Hurrengoa Apirilaren 21 izango da.

**Gehiago irakurri...**

*Zapiain* *Kale Nagusia 96, 20115 Astigarraga (Gipuzkoa)* *Telefonoa: 943 330 033* *FAX: 943 555 657* *Web Mapa*

Desarrollo KTS Technology Solutions